FINANTZEN EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO DE FINANZAS

JARDUERA-MEMORIA

2025

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

FINANTZEN EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO DE FINANZAS

AURKIBIDEA

1. GURI BURUZ	3
2. GOBERNANTZA	12
3. 2025EKO JARDUERA NAGUSIAK	15
4. FINANTZAKETA-ZORROA	21
5. FINANTZA-INFORMAZIOA	25

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

FINANTZEN EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO DE FINANZAS

1. GURI BURUZ

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Guri buruz

Finantzen Euskal Institutua Eusko Jaurlaritzaren finantza-politika enpresa-sarean ezartzeko tresna nagusia da

Institutua Eusko Jaurlaritzaren garapen ekonomiko eta sozialeko politikekin bat datozen finantza-neurriak garatu eta gauzatzeko tresna da, politika horien helburuak enpresa eta proiektuen beharretara egokitutako finantzaketa-tresna bihurtuz.

Oinarri horretatik abiatuta, gure jarduera Euskadiko produkzio-sarearen finantza-gaitasuna indartzera bideratzen da, finantzaketa eta inbertsio beharrei erantzuna emanez eta, betiere, gure inguruko finantza- eta inbertsio-sektorearekin lankidetzan eta modu osagarrian jardunez.


Euskadiko enpresei laguntzen diegu hazkunde-, nazioartekotze-, eraldaketa- eta ekintzailetza-proiektuetan, besteak beste, haien tamainara, garapen-fasera, sektorera eta proiektu bakoitzaren ezaugarrietara egokitutako formulen bidez.

Epe luzerako finantza-bazkide egonkorra gara, eta Euskadiko enpresek gurekin konta dezakete Euskadin eragina duten proiektuak bultzatzeko.

Horrela, finantzaketa eskuratzea erraztu eta kasu bakoitzean behar den laguntza eskaintzea dugu helburu, oztopoak murriztuz eta Euskadin eragin positiboa izango duten proiektuak bizkortuz.

Gure xedea Euskadiren garapen ekonomiko eta soziala modu jasangarrian bultzatzea da.

Gure helburuak lortzeko, hiru ikuspegi osagarritan egituratutako jarduketa-eredu baten bidez garatzen dugu gure jarduera: sustapeneko finantza-eragile gisa, politika ekonomikoaren finantza-tresna gisa eta erakunde arduradun gisa.



Gure jarduketa eredua

Sustapeneko finantza-eragile gisa, enpresei eta enpresaburuei finantzaketa zuzena eskaintzen diegu, mailegu, abal eta inbertsioen bidez, FEIren baliabide propioak erabiliz. Gure helburua Euskadiren garapen ekonomikoari laguntzen dioten proiektu bideragarriak babestea eta merkatuak behar bezala estaltzen ez dituen beharrei erantzuna ematea da, arreta berezia eskainiz ETEei eta kapitalizazio ertaineko enpresei.

Proiektuei epe luzeko ikuspegiarekin laguntzen diegu

Merkatuko baldintzetan eta finantza-irizpide zorrotzekin jarduten dugu, baina epe luzeko ikuspegiarekin, errentagarritasuna maximizatzetik harago. Horri esker, proiektu estrategikoak bultzatu eta Euskadiren eraldaketa ekonomiko eta sozialari ekarpena egin diezaiokegu.

Politika ekonomikoaren finantza-tresna gisa, Eusko Jaurlaritzako sailekin lankidetzan jarduten dugu, politika ekonomiko eta sektorialen helburuak finantza-soluzio zehatz bihurtzeko.

Finantza-ezagutza eta gaitasun teknikoa eskaintzen ditugu soluzio horiek diseinatu eta abian jartzeko, esparru edo egoera bakoitzaren beharretara egokituz. Beharrezkoa denean, finantzaketa sail eskudunaren kargurako laguntza publikoekin konbinatu daiteke, finantzaketaren eskuratzea erraztuz edo haren baldintzak hobetuz.

Politika ekonomiko eta sozialen helburuak finantza-soluzio eta -tresna bihurtzen ditugu

Erakunde arduradun gisa, zenbait programa publikotan, FEI finantza-kudeaketaz arduratzen da, programa sustatzen duen sailaren edo erakundearen kontura.

Gure finantza- eta inbertsio-ekosistemaren ezagutza sakona eta esperientzia espezializatua dugu.

Kasu honetan, aurrez zehaztutako baldintzak praktikara eramateaz arduratzen gara: eragiketak formalizatzen ditugu, baliabideak enpresetara bideratzen ditugu eta haien jarraipena egiten dugu. Horrela, gure finantza-espezializazioa eta kudeaketa-gaitasuna programa publikoen gauzatze profesional eta eraginkorraren zerbitzura jartzen ditugu.




FEI Taldea

FEI Taldearen egiturak finantza-baliabide, -tresna eta -ibilgailu publikoak modu integratuan antolatu eta koordinatzeko aukera ematen du, eragiketa edo proiektu bakoitzean haren ezaugarri, behar eta helburuetara hoberen egokitzen direnak erabiliz.

Eredu honen helburua da:

- **Tresna sorta zabala eta malgua eskaintzea**, baliabideak azkar eta modu espezializatuan bideratzeko gai dena.
- **Haien erabilera ikuspegi globalarekin koordinatzea**, osagarritasuna sustatuz, gainjartzeak saihestuz eta baliabide publikoen eragina eta efektu traktorea maximizatuz.

FEI Taldearen sozietate-egitura



Nola bultzatzen ditugu enpresak

Enpresa eta proiektuei beren ezaugarri eta beharretara egokitutako finantza-soluzioen bidez laguntzen diegu, tresna sorta zabal eta osagarri baten bitartez.

Gure jarduerak honako hauek hartzen ditu barne:

- **Enpresen etapa eta tamaina guztiak**, enpresaburu eta ETEetatik hasi eta tamaina handiagoko enpresa eta midcap-etaraino.
- **Jarduera-sektore desberdinak**, gure ingurumen-, gizarte- eta giza eskubideen errespetuari dagozkien irizpideekin bateraezinak direnak izan ezik.
- **Hainbat helburu**, hala nola hazkundea, nazioartekotzea, ekintzailetza, industria-eraldaketa, berrikuntza eta trantsizio ekonomiko eta sozial nagusiak.

Maileguak eta abalak zuzeneko eta zeharkako inbertsioarekin konbinatzen ditugu, enpresetako partaidetzak, tresna espezializatuak eta funtsak barne.

FEIk bi sozietate filial espezializatu eta osagarri ditu bere jarduera garatzeko eta finantzaketa- eta inbertsio-beharrizan desberdinei erantzun egokia emateko:

- **Finkatuz**, **errotzea** ardatz duena, Euskadirentzat estrategikoak diren enpresetan epe luzeko partaidetzen bidez.
- **Indartuz**, **eraldaketa** ardatz duena, tamaina edo konplexutasun handiagoko proiektuetarako kapitalaren, kuasikapitalaren eta zorraren bidez, eta, gainera, inbertsio pribatua mobilizatzea sustatuz.

Gaurko inbertsioa, biharko Euskadi sendoago baten alde

Euskadi Eraldatuz 2030

FEIren 2025eko jarduera **Euskadi Eraldatuz 2030** **(EE2030)** planaren inguruan ardaztu zen, Eusko Jaurlaritzak Euskal Finantza Aliantzaren (**EFA**) esparruan hartutako **1.000 milioi euroko inbertsio-konpromisoa** gauzatzeko inbertsio eraldatzaileen plana. Aliantza Eusko Jaurlaritzaren eta tokiko finantza-eragileen arteko **lankidetza publiko-pribatuko ekimena** da, Euskadiko enpresa-sarearen errotzea, hazkundea eta eraldaketa bultzatzeko. Eusko Jaurlaritzaren finantza-politikako tresna nagusi gisa, **EE2030 diseinatu eta gauzatzeko ardura duen erakundea gara**.

1.000 M€-ko inbertsio publikoa, Plana aktibatzeko.

Baliabide pribatuen mobilizazioa eta finantza-tresna eta -ibilgailu berrien hedapena.

Enpresen behar desberdinetara egokitutako finantza-arkitektura.

Planaren bitartekoak eta tresnak

FEI

- Zuzeneko FEI finantzaketa
- Finantzaketa bermatua

Finkatuz

- Finkatuz Berrituz, errotzerako partaidetzak

Indartuz

- Zor malguko Programa
- Eskalagarritasun Programa
- Azpiegitura aurreratuentzako Programa
- Trantsizio sozialerako Programa
- Arrisku-kapitaleko funtsak*

* Hazten scale-up y Ezten II, Euskal Herriko Arrisku-Kapitalaren Kudeaketa sozietateak kudeatutakoak

Euskadi Eraldatuz 2030

Mugarri eta aurrerapen nagusiak

2025 | HEDAPENERAKO URTE ERABAKIGARRIA

MARTXOA

Euskal Finantza Aliantza

Eusko Jaurlaritzaren eta Euskadiko finantza-eragileen arteko akordioa, inbertsio eraldatzaileak bultzatzeko

URRIA

Euskadi Eraldatuz 2030 aurkezpena

Aliantzaren esparruan konprometitutako 1.000 M€-ko baliabide publikoak bideratzeko inbertsio-plana

Indartuz FEI finantzaketa-lerroa

Lehen tresna abian. FEIren zuzeneko finantzaketa-lerroa, mailegu eta bermeen bidez

ABENDUA

Indartuz sorrera

Indartuz Kapitala, SA sortzen da, EE2030en aurreikusitako funts estrategikoa, Eusko Jaurlaritzak konprometitutako baliabideak bideratzeko funtsezko tresna

20252S

Lehen eragiketa esanguratsuak:

FEIk 20 M€-ko finantzaketa ematen dio CIEri. Finkatuzek EE2030en esparruko lehen bi eragiketak egin ditu, 80 M€-ko balioarekin: Ohmnia eta Talgo

2025eko aurrerapena | ERALDATZEN DUTEN INBERTSIOAK

Helburua: 4.000 M€ mobilizatzea

(1.000 M€ publiko + 3.000 M€ pribatu)

Euskadiko ekonomia eta produkzio-sarea eraldatzea etorkizuneko erronkei aurre egiteko.

Finkatuz

80,8 M€ inbertituak

247 M€ mobilizatuak

Indartuz finantzaketa-lerroa

83,6 M€ inbertituak

224,5 M€ mobilizatuak

2026 PLANGINTZA

SENDOTU, ESKALATU, AURRERA EGIN

Eskalagarritasun Programa
Urte hasieran Indartuzen zeharkako inbertsiorako lehen programa jarriko da abian, Euskadiko enpresa-proiektuen hazkundea, sendotzea eta lehiakortasuna bultzatzeko.

Zor-funtsa
2026ko lehen hiruhilekoan, Euskadiko produkzio-eraldaketarako zor-funtsa sortu eta administratuko duen kudeatzailea hautatzeko deialdia abian jarriko da.

Arrisku-kapitaleko funts publikoak
Urteko lehen seihilekoan Hazten Scale-up eta Ezten II funts publikoak eratuko dira, potentzial handiko enpresetan arreta jartzen dutenak.

Finkatuz berrituz
350 M€-ko kapital-handitzearekin indartuko da, enpresa traktoreen errotzea bultzatzeko gaitasuna handitzeko.

Azpiegitura aurreratuen funtsa
Urteko azken hiruhilekoan, azpiegitura aurreratuen funtsa sortu eta administratuko duen kudeatzailea hautatzeko deialdia abiaraziko da, azpiegitura estrategiko eta gaitzaileetako inbertsioak bultzatzeko.

Finkatuz

Finkatuz Euskadi Eraldatuz 2030 planaren euskarri den tresna nagusietako bat da. Ehun ekonomikoaren errotzea indartzeko helburuan, **2026an bere kapitala 350 M €-tan handitzeaz** gain, **2025ean, errotzeko estrategia ere eguneratu zen**: **50 milioi euro baino gehiagoko fakturazioa duten enpresetara** zabaldu zen esparrua, eta **IGG irizpideak** sartu ziren.

Kronologia

2021
- Finkatuz-en sorrera
- Hasierako kapital soziala: 160 M €
- Bazkideen ekarpena: + 50 M €

2022
- Lehenengo inbertsioa: ITP Aero
- Bigarren inbertsioa: CAF
- Hirugarren inbertsioa / Bazkideen ekarpena: Kaiku
- Lehenengo kapital-zabalkuntza: + 100 M €*

2023
- Bigarren kapital-zabalkuntza: + 40 M €
- Sarrera berrien azterketa eta negoziazioa
- Harremanak sendotzea tokiko inbertitzaileekin
- Amaierako kapital soziala: 300 M €

2024
- ITP – jaulkipen-primaren banaketa: 38 M€
- Araniako inbertsioaren azterketa eta negoziazioa

2025
- Estatutu sozialak aldatzea, Euskadi Eraldatuz 2030 Planarekin bat egiteko
- Beste 4 inbertsio** (171 M€): Arania, Ohmnia/Innometal, Arteche eta Talgo

Inbertsio-irizpideak

Konpainia batean sartzeko erabakiak hartzeko bete beharreko oinarrizko inbertsio-printzipioak estatutuetan zehaztutakoak dira:

TAMAINA
50 milioi eurotik gorako fakturazio-bolumena, eta gutxienez 30 langile

ERROTZEA
Egoitza sozial eta fiskala eta establezimendu iraunkorra EAEn, edo hona ekartzeko konpromisoa

ERAGINA
Ondorio positiboa — zuzenekoa edo zeharkakoa— izan dezatela ekonomia-sarean

SEKTOREA
Zeharkakoa, baina, batez ere, sozietatearen estatutuetan adierazitakoak

ZORROA
Arriskuaren dibertsifikazioa bermatu beharko da, eta sektore batean % 30 baino gehiago biltzea saihestu

PARTAIDETZA
Gutxienez % 5 (% 3 sozietate kotizatuetan), eta inoiz ez kapitalaren % 49 baino gehiago

BILTZEKO MUGA
Sozietate batean, partaidetzak ez luke Finkatuz-en kapital sozialaren % 20 gainditu behar

BULTZATZEA
Lehentasuna emango zaio ikuspegi eta konpromiso bera duten bazkide pribatuekin batera egindako inbertsioari

JASANGARRITASUNA
Kontuan hartuko dira, batetik, IGG arriskuak inbertsioan eta, bestetik, eremu horretako helburuak lortu izana

Politika publikoekin bat egitea

Kapital-partaidetzak hartzearen helburua da Eusko Jaurlaritzaren plan eta politika publikoekin bat egitea. Horretarako, partaidetzapeko konpainien administrazio organoan ordezkari bat izendatzea sustatuko da, gaitasun, esperientzia eta arduraldi egokiak dituena.

* 2021eko 50 M €-ko ekarpena 50 M € eta 50 M €-ko kapital berria.
** 2025eko abenduaren 31n sinatu zen Ayesaren erosketa. Eragiketa 2026ko lehen seihilekoan itxiko da.
*** Basque FCR funtseko partaidetzak Finkatuz funtsera eskualdatzea.

2025ean egindako eragiketak

Finkatuz **enpresak 4 inbertsio*** egin zituen EAEko trakzio-industrietan kokatutako euskal konpainietan, guztira **171 M€ zenbatekoarekin.**

2030eko Industria Planaren sektore estrategikoak	SEKTOREAK	Helburu komunak	% Finkatuz-en partaidetza **	Finkatuz inbertsioa	Partzuergoa / Funtsezko bazkideak
Grupo Arania	Metalurgia	Eskalagarritasuna / hazkundea	% 6,25	15 M€	Familia sortzailea
Ohmnia Innometal Group	Elektronika eta metalurgia	Talentua garatzea Errotzea	% 24,90	35 M€	Industria-ezagutza*** + Errotzea mirai INVESTMENTS · Vital FUNDAZ CA
arteche	Sare elektrikoak eta sare adimendunak	Tokiko hornidura-katea bultzatzea	% 6,40	75 M€	Familia sortzailea
Talgo	Mugikortasun jasangarria	Kapital pribatua erakartzea	% 7,84	46 M€	Industria-ezagutza*** + Errotzea mirai INVESTMENTS · bbk · Vital FUNDAZ CA
				171 M€	

* Artecheren kasuan, Basque FCR funtseko partaidetzak Finkatuz funtsera eskualdatzea da.
** Finkatuz-en partaidetza 2025eko abenduaren 31n.
*** Mirai Investments inbertsio-sozietatea da, Sidenorri lotua eta industria-esperientzia handikoa.

Zorroan dauden sektoreak eta inbertsioa, lurralde historikoaren arabera

2025eko itxiera

Inbertsio metatua
275,0 M€


Enpresa kopurua
7

2024ko itxiera


Inbertsio metatua
104,0 M€

Enpresa kopurua
3


Sektoreak zorroan, 2025ean



Metatutako inbertsioa lurralde historikoaren arabera



Inbertitutako zenbatekoa lurralde historikoaren arabera



FINANTZEN EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO DE FINANZAS

2. GOBERNANTZA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Gobernu korporatiboa

Hauek dira FEIren gobernu-organoak: **Administrazio Kontseilua** (FEIren erabaki-organo gorena, eskumen gehien duena eta entearen barne-ikuskapena egin behar duena) eta **Zuzendaritza Nagusia** (Institutuaren legezko ordezkaria duen kide bakarreko organoa, eta bere gain hartzen duena institutuaren ohiko zuzendaritza).



Administrazio Kontseilua

Hauek dira, besteak beste, Administrazio Kontseiluaren egitekoak: aurrekontuen aurreproiektua, urteko kontuak eta memoria ekonomikoa onartzea; zorpetze-mugak ezartzea; jarduera-ildo orokorrak definitzea; FEIren jarduera-tresnak onartzea, eta haren barne-antolamendua gainbegiratzea.


Finantzen eta finantza-politikaren arloan eskumena duen **saileko titularra** da Administrazio Kontseiluko **kontseiluburua**, sail hari atxikita baitago Finantzen Euskal Institutua. Kontseiluburuak eta beste **sei kidek** osatzen dute Kontseilua, eta Gobernu Kontseiluak izendatzen ditu sei kide horiek.

Gaur egun, hauek dira Kontseiluko kideak:


Izaera	Izena	Kargua
Kontseiluburua	**Noël d'Anjou Olaizola**	Ogasun eta Finantzetako sailburua
Kideak	**Mikel Jauregi Letemendia**	Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburua
	José Enrique Corchón Álvarez	Finantza Politikako eta Aurrekontuetako sailburuordea
	Iñaki Alonso Arce	Ogasuneko sailburuordea
	Andoitz Korta Zearreta	Industria Sustatzeko sailburuordea
	Juan Alberdi Alberdi	Finantza Politikako eta Gizarte Aurreikuspeneko zuzendaria
	Zigor Urquiaga Urquiza	Proiektu estrategikoetako aholkularia

Organigrama funtzionala eta taldea

FEIko plantilla apurka-apurka joan da handitzen, lehenengo langileak 2014an hasi zirenetik. 2025aren itxieran, **17 pertsonak** osatzen dute FEI; horietatik % 47,1 emakumeak dira eta % 52,9 gizonak. FEIk konpromisoa du langile guztien aukera-berdintasuna bermatuko duen lan-ingurune batekin, edozein direla ere langileen generoa edo bestelako ezaugarri pertsonal batzuk.




Plantillaren bilakaera (2014-2025)



Finantzen Euskal Institutuak hainbat arlo funtzional ditu, bai operatiboak eta negoziokoak, bai haren jardueraren zeharkako beste batzuk:

- **Inbertsioak:** onartzea, mailegu- eta abal-eskaerak aztertzea, zorroaren jarraipena egitea.
- **Funtsak eta partaidetuak:** zuzeneko eta zeharkako inbertsioa aztertzea, partaidetza-zorroaren kudeaketa eta jarraipena egitea. Finkatze Kapitala Finkatuz, SAU e Indartuz Kapitala, SA sozietateen kudeaketa.
- **Finantza-estrategia:** estrategia korporatiboa, produktuen garapena, komunikazio korporatiboa, erakunde-harremanak.
- **Administrazioa eta finantzak:** administrazioa, kontabilitatea, zerbitzu orokorrak eta kontratazioa.
- **Aholkularitza juridikoa:** aholkularitza juridikoa, araudia betetzea, formalizazioak, Administrazio Kontseiluaren idazkaritza.

Organigrama, arlo funtzionalen arabera



FINANTZEN EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO DE FINANZAS

3. 2025ko JARDUKETA NAGUSIAK

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Jardueraren xehetasunak

FEIren zuzeneko jarduera 2025eko ekitaldian emandako finantzaketari dagokio, EAEn egoitza duten edo eragina duten negozio-lerroak dituzten enpresei emandako mailegu eta berme gisa.

2025ean, FEIk **beste mugarri bat lortu zuen, urteko 100 milioi euroko jarduera gaindituz** lehen aldiz. Guztira, **FEIk 117,1 milioi** euro eman zituen, hau da, emakidaren bolumena 43,8 milioi euro handitu zen guztira 2024arekin alderatuta (+ % 59,8), eta 69 eragiketa gehiago egin ziren (+% 85,1).

Emandako finantzaketaren % 62 **enpresa handietara** bideratu zen, eta gainerako % 38 ETEetara. Banaketa hori E2030ek bultzatu zuen.




2025

Nominal formalizatua	Eragiketa kopurua	Enpresa kopurua
117,1 milioi€	150	35

2024

Nominal formalizatua	Eragiketa kopurua	Enpresa kopurua
73,3 milioi€	81	38

Nominal formalizatua, enpresen tamainaren arabera




Oharra: 2025eko jarduera-datuek ez dituzte barne hartzen Gazteaval lerroan emandako eragiketak.

Jardueraren xehetasunak


Euskadiko enpresa-ehunaren izaerarekin bat etorriz, **manufaktura-industria** izan zen berriro ere FEIk 2025ean emandako finantzaketaren xede nagusia, guztizkoaren % 51,6rekin, aurreko ekitaldian gehiengoa izan zen % 76aren aurrean. Hala ere, industria-sektoreko enpresekin formalizatutako zorpetzea % 7,8 murriztu zen 2024arekin alderatuta, beste sektore batzuen mesedetan, hala nola Merkataritza eta Konponketak, 2025eko guztizko finantzaketaren % 37,7 baita.

Euskal Autonomia Erkidegoko **Lurralde Historikoetako** eragiketen **banaketari** dagokionez, formalizatutako eragiketa nominalaren % 75,7 **Bizkaiko** enpresetara bideratu zen, % 16 Gipuzkoara eta % 4,9 Arabara. Urteko zorpetzearen gainerako % 0,4 egoitza soziala beste lurralde batzuetan duten baina Euskadin eragina duten proiektuak dituzten enpresekin formalizatu zen.

Nominal formalizatua, jarduera-sektoreen arabera



Nominal formalizatua, lurralde historikoen arabera



Oharra: 2025eko jarduera-datuek ez dituzte barne hartzen Gazteaval lerroan emandako eragiketak.


Jardueraren xehetasunak

2025ean finantzatutako enpresetatik, **% 82,9 ETEak** izan ziren, hau da, 2024an finantzatutako 250 langile baino gutxiagoko mailegu-emaileak baino pixka bat gutxiago, ekitaldi horretan guztizkoaren % 89,1 izan baitziren. Beraz, enpresa handiei emandako finantzaketaren zenbatekoa kontuan hartuta, 2025ean formalizatutako guztizkoaren % 62, eragiketa bakoitzeko batez besteko finantzaketa-zenbatekoa handiagoa izan zen enpresa handien kasuan. Hala ere, bi enpresa mota horietarako batez besteko finantzaketa-zenbatekoa handitu egin zen 2025ean.


FEIk 35 enpresari eman die finantzaketa 2025ean, batez ere ETEei eta industria-sektorekoei


Jarduera-motaren arabera, zenbatekoaren arabera bezala, **industria-sektorea** nagusi izan zen finantzatutako enpresetan 2025ean. FEIren mailegu eta abal tresnak eskuratu zituzten enpresen **% 60** sektore horretakoak izan ziren, 2024an erregistratutako % 48,6aren gainetik.

Enpresa kopurua, tamainaren arabera



Enpresa kopurua, jarduera-sektoreen arabera





Oharra: 2025eko jarduera-datuek ez dituzte barne hartzen Gazteaval lerroan emandako eragiketak.

2025eko jarduera, Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) kontuan hartuta

Finantzen Euskal Institutuak konpromisoa du garapen ekonomiko eta sozial jasangarriko eredua gauzatzeko, guztiontzat bidezkoagoa, zuzenagoa, inklusiboagoa eta jasangarriagoa izango den mundu bat eraikitzeko bide gisa, eta, horregatik, Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) lortzera bideratzen ditu bere jarduketak eta tresnak, inpaktu positiboa duten ekimenak babestuz.

Konpromiso horri jarraikiz, Finantzen Euskal Institutuak ebaluatu egin du zer ekarpen egin dien bere jarduerak GJHei, eta kuantifikatu egin du zer baliabide bideratu den horietako bakoitzera 2025an formalizatutako eragiketen bidez. Proiektu bakoitzari hiru GJH lotu zaizkio gehienez, duten izaera eta xedearen arabera; beraz, lotutako zenbatekoen baturak ekitaldian erregistratutako jardueraren guztizko bolumena gainditzen du.





8. GJH:
Lan duina eta hazkunde ekonomikoa

106,7 M €



9. GJH:
Industria, berrikuntza eta azpiegitura

48,7 M €



12. GJH:
Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak

17,1 M €



7. GJH
Energia irisgarria eta ez-kutsagarria

10,9 M €



15. GJH:
Lehorreko ekosistemetako bizitza

9,1 M €



11. GJH:
Hiri eta komunitate jasangarriak

1,9 M €*

* Gazteaval barne

Gazteaval

Irailean, FEIk, Eusko Jaurlaritzaren **Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Sailarekin** batera, Gazteaval programa jarri zuen abian, 40 urtetik beherako gazteei beren **lehen ohiko etxebizitza eskuratzeko aukera erraztera** bideratutako ekimena.

144 milioi euroko zuzkidurarekin, kaudimendunak izan eta baliabideak izan arren, lehen etxebizitza eskuratzeko behar den aurrezpena ez duten pertsonei laguntzea da helburua, finantza-entitateek ematen duten ohiko % 80tik gorako hipoteka-mailegua eta higiezinaren **balioaren % 100era** artekoa lor dezaten.

Gazteaval mugarri bat da FEIrentzat: **partikularrei zuzendutako lehen lerroa** da, erronka sozial desberdinak gainditzeko helburuarekin. Abal publikoko tresna honen bidez, FEIk gazteen emantzipazioari laguntzen dio, etxebizitza eskuratzeko oztopoak murrizten ditu, aukera-berdintasuna sustatzen du eta belaunaldi berriak Euskadin errotzen laguntzen du.

Gazteaval zenbakitan

61 abal formalizatu dira	**1,4 M€** abalatuta
10,6 M€ emanda hipoteka-maileguetan	Hipoteka-maileguen batez besteko zenbatekoa: **174,2 mila euro**

Gazteaval programara atxikitako finantza-entitateak



FINANTZEN EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO DE FINANZAS

4. FINANTZAKETA-ZORROA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Zorroaren xehetasunak

2025aren itxieran, FEIren **kreditu-arriskua 232,3 milioi eurokoa** izan zen, 224 enpresari emandako **323 eragiketa** biziri zegozkienak. Zenbateko horretatik, 217,7 milioi euro gaur egun aktibo dauden lerroei dagozkie, eta gainerako 14,6 milioi euroak, berriz, aurreko urteetan jada itxita dauden lerroetan emandako eragiketei dagozkie.

Kreditu-arriskua **% 29,9 handitu** zen arren, 2024an 178,8 milioi euro izatetik 2025ean 232,3 milioi euro izatera igaroz, zorroan saldo bizia zuten eragiketen kopurua 57 jaitsi zen.

Zorroan, 2025eko itxieran 3,9 milioi euroko saldo bizia zuten eragiketen multzo bat **berandutze-egoeran** zegoen ordainketa-obligazioei erantzuteko orduan, guztizko **saldo biziaren % 1,7ren baliokidea**.


2025

Saldo bizia	Eragiketa kopurua
232,3 milioi€	323

2024

Saldo bizia	Eragiketa kopurua
178,8 milioi€	380

Saldo bizia, lerro motaren arabera






Oharra: 2025eko jarduera-datuek ez dituzte barne hartzen Gazteaval lerroan emandako eragiketak.

Zorroaren xehetasunak


Eragiketa bizien **banaketa geografikoari** dagokionez**, 122,8 milioi euro** (**153 eragiketa**) **Bizkaiko enpresei** egokitu zitzaizkien, 61,3 milioi euro (94 eragiketa) Gipuzkoako enpresei, 44,6 milioi euro (69 eragiketa) Arabako enpresei. 3,6 milioi euro (7 eragiketa) Euskadin eragin-jarduerak dituzten beste lurralde batzuetako enpresei egokitu zitzaien, bai egoitza EAEtik kanpo duten baina Euskadin produkzio-zentro bat duten enpresei, bai euskal enpresei lotutako atzerriko sozietateei. **Lurralde guztietan emandako zenbatekoa igo egin zen**, eta Bizkaian hazi zen gehien eragiketa bizien saldoa, % 60,7 igo baitzen 2024aren aldean.



Eragiketen saldo bizia, lurralde historikoen arabera



Eragiketa kopurua, lurralde historikoen arabera




Oharra: 2025eko jarduera-datuek ez dituzte barne hartzen Gazteaval lerroan emandako eragiketak.

Zorroaren xehetasunak

2025eko itxierako saldo biziaren % 56,8 **industria-sektoreari** zegokion, **132 milioi euroko 140 eragiketarekin**. Nahiz eta saldo bizia handiagoa izan jarduera-sektore horrentzat 2024ko datuekin alderatuta (103,3 milioi euro), zorroko eragiketen kopurua murriztu egin zen eta, beraz, **emandako batez besteko nominala handitu** egin zen.

Zorroko eragiketen % 43,3 industria-sektoreetako eta manufaktura-sektoreetako enpresei dagokie


Saldo bizia, jarduera-sektoreen arabera



Enpresa txiki eta ertainen multzoa da zorroan presentzia handiena duen taldea, bai eragiketa kopuruari dagokionez, bai formalizatutako zenbatekoari dagokionez

ETEak zorroko eragiketa guztien % 87,0 izan ziren 2025eko itxieran, 323 eragiketetatik 281 guztira, eta zorroko saldo biziaren % 40,9. Aitzitik, enpresa handien finantzaketa ordura arte formalizatutako eragiketen % 9,9 izan zen, eta saldo bizi osoaren % 59 kontzentratu zuten, multzo bakoitzeko eragiketa bakoitzeko batez besteko saldoan zegoen dibergentziaren isla. Eragiketa bakoitzeko zenbateko handiena agerian geratu zen, halaber, enpresa handientzako zorroko eragiketen kopurua 14tan jaitsi bazen ere 2024aren aldean, saldo biziaren hazkundea 54,5 milioi eurokoa izan baitzen aldi berean.

Saldo bizia eta eragiketa kopurua, enpresen tamainaren arabera



Oharra: 2025eko jarduera-datuek ez dituzte barne hartzen Gazteaval lerroan emandako eragiketak.

FINANTZEN EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO DE FINANZAS

5. FINANTZA-INFORMAZIOA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO


FEIren balantzea - Aktiboa

Kontabilitateari dagokionez, FEIk **977 milioi euroko aktibo osoarekin** itxi zuen 2025eko ekitaldia, eta ondare-tresnak (Finkatuz eta Indartuz enpresen partaidetzak barne, guztizkoaren % 38 baitira) ia bi herenak dira. 2024arekin alderatuta, epigrafe hori % 25,5 handitu zen (91,1 milioi euroko igoera), Indartuz Kapitala, SA sortu zelako, hasieran 65 milioi euro ordainduta, eta Ekarpen Private Equity SAren kapital-gehikuntzan 26,1 milioi euroko partaidetza izan zuelako.


Kreditu-jardueraren hazkundea aktiboan islatu zen, eta horren bigarren partida garrantzitsuena (guztizkoaren % 21,8) 213,2 milioi eurora igo zen, hau da, 2024aren aldean % 18,6ko hazkundea izan zuen.



Aktiboaren osaera



Aktiboaren bilakaera 2024-2025



FEIren balantzea – Partaidetza-zorroa

FEIri dagokio, Eusko Jaurlaritzaren jarraibideen arabera, **Eusko Jaurlaritzaren finantza-partaidetzak izatea finantza-arloko funts eta sozietateetan**, finantzaketa-tresnak ahalik eta ondoen antolatzeko, **ikuspegi orokorra** izateko eta **kontrola** eta **koordinazioa** errazteko.

Partaidetzen multzoan sartzen dira, alde batetik, enpresa ez-finantzarioen finantzaketa eta sustapena errazten duten sozietate, inbertsio-ibilgailu edo fundazio jakin batzuei dagozkienak, hala nola Elkargi elkarren bermerako sozietatea, Luzaro kredituko finantza-establezimendua edo Ekarpen Private Equity kapital-sozietatea. FEIk partaidetza horiek ditu, irauteko asmoz, EAEko Administrazio Orokorraren ordezkari gisa, erakunde horiei laguntzeko eta haien jarduera zuzenean gainbegiratzeko.

Era berean, zorroaren zati dira Administrazio Orokorrak Ezten, Basque eta Lanpar 2013, FCR arrisku-kapitaleko funtsetan egindako partaidetzak, GRCPVk kudeatutakoak. Horiekin batera, eta FEIren izaera eta finantzaketa-ibilgailuetako zeharkako inbertsioaren bidez ekonomia bultzatzeko duen estrategia kontuan hartuta, zorroaren zati dira, halaber, ABE, FCR funtsetako partaidetzak, ABE CAPITAL PARTNERS, SGEIC, SAk eta Talde Gestión, SGEIC, SAren ordezko zorraren FILPEk kudeatutakoak.

Azkenik, FEIk zorroan mantentzen ditu enpresetan egindako partaidetzak, bai zuzenean, bai ULMA Inversiones kooperatiba-sozietatearen kasuan, bai zeharka, Finkatuz sozietate publikoaren bitartez, kasu honetan, errotzeko helburuarekin.

Partaidetza-zorroa 2025aren itxieran

PARTAIDETZAK	2025	
Kapitaleko partaidetzak	**Zenbatekoa (milioi €-tan)**	**Kapital sozialaren %**
Instituzionalak		
SOCADE, SA	12,0	% 40,0
FINKATZE KAPITALA FINKATUZ, S.A.	306,6	% 100,0
LUZARO EFC, SA	0,8	% 17,6
ELKARGI, SGR	6,5	% 5,5
INDARTUZ KAPITALA, S.A.	65,0	% 100,0
EKARPEN PRIVATE EQUITY, SA	52,2	% 34,8
EZTEN, FCR	110,9	% 100,0
ABE PEF, FCR [3]	15,2	% 10,9
BASQUE, FCR	99,2	% 100,0
LANPAR 2013, FCR	1,7	% 85,7
TALDE DEUDA ALTERNATIVA FILPE	2,4	% 6,6
Enpresarialak		
ULMA INVERSIONES , S. COOP	7,0	-
FEI, GUZTIRA	**679,6**	
FINKATUZ, GUZTIRA*	**256,6**	

* Finkatuz programaren partaidetzen xehetasuna 11. orrialdean edo Finkatuz enpresaren urteko memorian kontsulta daiteke.

Oharra: Kotizatu gabeko partaidetzen kostu-balorazioa (narriaduraren ebidentzia objektiboa dagoenean doituta), eta ondare garbian aldaketak dituzten arrazoizko balioko finantza-aktibo gisa kotizatutako partaidetzak.

FEIren balantzea - Pasiboa


2025aren itxieran, **pasiboaren partida nagusia ondare garbia** izan zen, gehiena Finkatuz eta Indartuz eratzeko egindako ekarpenek edo Administrazio Orokorrak EHAKKk kudeatutako arrisku-kapitaleko funtsetan dituen partaidetzak FEIra eskualdatzeak sortua. 2024ari dagokionez, Funts Propioak 109,8 milioi eurotan handitu ziren, batez ere Indartuz funtsa sortzeko Gizarte Funtsari egindako ekarpenengatik. Ondare garbia **pasibo osoaren % 80,7** izan zen.

Aurrekontu publikotik zetozen baliabideekin batera, FEIren finantzaketa-bide nagusia Europako Inbertsio Bankuarekin sinatutako finantzaketa-eragiketak izan ziren. Europako erakundea finantzaketa-iturri da duela hamarkada bat baino gehiagotik, eta mailegu-erakunde nagusia da, 176 milioi euroko zorpetzearekin urtearen itxieran (% 95,9).


Gainera, FEIk 8,3 milioi euroko pasibo kontingenteak zituen erregistratuta urtearen itxieran, emandako finantza-berme gisa.



Pasiboaren osaera



Pasiboaren bilakaera (2024-2025)




Galdu-irabazien kontua


FEIk **4,8 milioi euroko emaitzarekin** itxi zuen 2025eko ekitaldia, zergak ordaindu ondoren, 2024an izandakoaren antzera. Alde batetik, diru-sarrera eta gastu finantzarioek interes-tasen murrizketa-testuinguruaren araberako bilakaera izan zuten. Diru-sarrera finantzarioak % 23,9 murriztu ziren 2024aren aldean, eta gastu finantzarioak % 44,1. Horren ondorioz, finantza-emaitza % 16,1 murriztu zen. Negozio-zifraren zenbateko garbia (-3,6 M €2024aren aldean) txikiagoa izan arren, **ekitaldiko emaitza azken bi urteetakoen maila beretan mantendu zen**, mozkinen gaineko zerga murriztu egin zelako aurreko ekitaldietako zerga-oinarri negatiboen konpentsazioagatik.

Bestalde, arriskuen kudeaketan zuhurtasun-irizpidea jarraituz, kreditu-eragiketen gaineko hornidurak indartu dira, balizko arriskuen eta balio-narriaduren aurrean.

Emaitzaren bilakaera (2021-2025)



FEIren emaitza 2025ean



2025eko emaitzak 2023an hasitako egonkortasun-joerari eusten dio

IVF

94 403 38 49

info@ivf-fei.eus

www.ivf-fei.euskadi.eus

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO